

Hondarribiko Mugikortasun Jasangarrirako Mahaiaren bilera

Jarduera: azken aurrerakuntzak azaldu eta 2020 urtearen balantzea.

Data eta modua: 2020ko abenduaren 20an, 18:30etan, bideokonferentzia bidez.

Deialdia: Hondarribiko Udalak.

Partaideak

17 pertsona heldu (6 emakume eta 11 gizon).

	Izena	Erakundea
1	Maialen Ausin	Udal Ingurumen Teknikaria
2	Ainhoa Larretxea	Talaia institutua
3	Cesar Campos (Susana laguntzaile gisa)	Bizilaguna
4	Jesús Uranga	Udaltzaina
5	Gorka Obeso	Talaia institutua
6	Ángel Alkain	Amuitz, bizilaguna
7	Iñaki Loinaz	Ama Guadalupekoa eskolako guraso elkarte
8	Eli Sorondo	Ama Guadalupekoa eskolako zuzendaria
9	Iñaki Astudillo	Amute Kosta bizilagun-elkartea
10	Alicia Pino	Bizilaguna
11	Noemi Odriozola	PSE alderdiko zinegotzia
12	Cesar Martín	Nagusilan
13	Juan Luis Silanes	Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria
14	Manu Eizagirre	Balazta elkarte
15	Estibalitz Hernández	Talaia guraso-elkartea
16	Gonzalo Navarrete	Mahaiko bideratzailea
17	Ander Irazusta	Mahaiko bideratzailea

Landutako gaiak

1. 30 km/h erregulazioaren garapena eta azken aldaketak.
2. Bizikleta-aparkalekuen sarearen hedapena.
3. Eskola-inguruneen hobekuntza-egitasmoen egoera.
4. 2020 urtearen balantzea. Proposamenak eta iradokizunak.

Ingurumeneko zinegotziak ongi etorria egin eta topaketan parte hartzea eskertu zuen. Osasun-larrialdiak eragindako egoera berezia dela eta, bideokonferentzia bidez egin zen. Saio horretan bi kide berri batu ziren Mahaira: Udaleko talde sozialistaren ordezkaria eta gurgildun aulkia erabiltzen duen Amuteko bizilagun bat.

1. 30 km/h erregulazioaren garapena eta azken aldaketak

Zirkulazioaren Araudi Orokorreko abiadurari dagozkion azken aldaketak azaldu ziren; berrikuntza gisa, 30 km/h abiadura ezarri da noranzko bakoitzeko bide bakarra duen kaleetan. Hondarribian ezartzen hasi diren neurriak indartzen dituen arau bat da, eta udal zirkulazioaren ordenantza berrian eragina izango du.

2. Bizikleta-aparkalekuen sarearen hedapena

Jakinarazi zen bizikleta-aparkalekuen sarea hedatu egin dela azken asteetan, azpimarragarri, batik bat, Mendelun, Amuten, Talaia institutuan eta Alde Zaharreko sarrerako pasabidearen inguruan egindakoak.

3. Eskola-inguruneen egitasmoen hobekuntza

Bitoriano Juaristi kaleko Ama Guadalupekoa eskolaren ingurunean egindako hobekuntzarako esku-hartzearen aurrerakuntzak azaldu ziren. Amaitutakoan, aurreikusita dago hezkuntza-komunitatearekin eta bizilagunekin hainbat ebaluaketa-jarduera egitea. Talaia-Bordari eta Talaia institutu inguruneke Talaia Alai egitasmoari dagokionez, azaldu zuten oso aurreratuta dagoela, eta laster jarriko dela berriro ere martxan 2020ko martxoan etendako partaidetza-prozesua: egitasmoaren atalak kontrastatuko dira hezkuntza-komunitatearekin, bizilagunekin eta Mugikortasun Mahaiarekin.

4. 2020 urtearen balantzea. Proposamenak eta iradokizunak

Hondarribiko mugikortasunaren 2020 urteko balantze orokorra egin eta, 2021ari begira, abiada hartzeko asmotan, topaketaren zatirik handiena txandaka hitz egiteari eskaini zitzaion, eta bertaratu gehienek parte hartu zuten.

Balazta bizikleta-elkarteak, Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planari dagokionez, Udalaren azken urteko funtzionamendu eta jarduerari buruz duten iritzia adierazi zuten; oso eskasa izan dela irizten du. Haien ustez, osasun-larrialdia baliatu behar zen modu jasangarriak indartuko dituen neurriak ezarri ahal izateko, eta beste leku batzuetako adibideak aipatu zituzten, horietan azpiegiturak egokitu baitira oinezkoen eta bizikletazkoen modua sustatzeko. Egun dagoen bizikleta-sarearen mantenuan inbertitu ez dela ere azpimarratu zuten. Mugikortasun jasangarriaren tokiko itunaren oinarriari egin zuten erreferentzia, ahaztu ez daitezen. Positiboki balioetsi zuten bizikleta-aparkalekuetan egindako ahaleginari, horien tipologia aurrez baloratzearen garrantzia gogora ekarriz. Aurreikusitako ziklagarritasunerako hobekuntza-jarduerak lehenbailehen egitea eskatu zuten.

Talaia guraso-elkartekoak kexu ziren Mahaian egindako lan sakonaren eta mugikortasun-planifikazioan egindako ahaleginaren ostean, ez dela aurrerakuntza handirik nabari alor horietan. Azpimarratu zuten, ikasturte berria hasi ostean ere, Talaia Bordari eta Talaia institutuko eskola-zonaldeko mugikortasun-arazoei, premia konpondu beharrekoak, hor jarraitzen dutela. Adierazi zuten gutxienez oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko behin-behineko irtenbideak ezarrita egon behar zirela. Positiboki balioetsi zuten Hondarribia barruan autoaren erabilera murrizteko udal-kanpaina, baina zalantza egiten zuten ea kanpaina hori eraginkorra ote den erabilera murrizteko neurri fisikoak jarri gabe eta modu jasangarriak sustatu gabe. Aurrerakuntza positibotzat

baina ahul eta kontrajarritzat jo zuten Iztueta kalean autoak 30 segundotan gelditzeko zonalde bat jartzea, itxuraz eskolaren inguruko egoera hobetzen duela dirudien arren, autoak erakartzen baititu ikastetxearen ia ateraino.

Talaia Bordari eskolako zuzendaritzak argitu nahi izan zuen Juan Inazio Iztueta kaleko geldialdi laburreko zonaldea jartzea ikastetxearen eskaria izan zela, atean autoak ez pilatzeko eta egoera arriskutsuak saihesten saiatzeko. Hala ere, beharrezkotzat jotzen zuten neurri landuagoak hartzea oinezkoen eta bizikleta-erabiltzaileen desplazamendu seguruagoak izan daitezen. Jakinarazi zuten bizikleta dagoeneko asko erabiltzen dela eta bizikleta-aparkalekuak bete egiten direla.

Amute-Kosta bizilagun-elkartearen iritziz, gauza gutxi egin dira mugikortasunaren paradigma aldatzeko. Eskatzen zuten modu jasangarriak sustatzen dituzten neurri zorrotzak ezartzea, izan ere, plan eta egitasmoetatik aurrerakuntza nabarmenak ateratzen ez badira, lanean jarraitzeko indarra galdu egiten baita.

Udaleko talde sozialistaren ustetan, autoarekiko benetako alternatibarik ez dagoen artean, horren erabilera beharrezkoa izango da Hondarribian mugitzeko, batik bat, egun euritsuetan. Autobus txikiz osatutako garraio publikorako zerbitzuaren bideragarritasunari buruz galdetu zuen.

Hainbat partaidek positibotzat jo zituzten autoaren erabilera murrizteko kanpainak eta berriki ezarritako 30 km/h araua; trafikoa abiadura murriztea lortu dela azpimarratu zuten, adibidez, Baserritarren etorbidearen zonaldean. Hainbat herritarrek arau berriaren berri ez dutela ere esan zuten, hortaz, beharrezkoa dela kanpaina gehiago egitea.

Udalari eskatu zitzaion mugikortasun jasangarriarekin erlazionatutako egitasmoetan egindako gastuak azaltzea, aurrekontuan sartutakoaren eta gastatutakoaren arteko balantzea egiteko. Hondarribia eta Irun arteko bizikleta-lotura egiteko Udalaren gestioen egoerari buruz ere galdetu zuten.

Hainbat esku-hartzetan irisgarritasuna eta oztopo arkitektonikoak ezabatzearen gaiak aipatu ziren. Gorpildun aulkia erabiltzen duen pertsonak esan zuen Hondarribiko egoera pixka bat hobetu dela azken urteetan, baina oraindik ere nahiko zaila dela aulkian ibiltzea. Ildo horretatik, Mahaiko beste kide batek zioen asko direla zero mailara lehenbailehen jaitsi beharreko oinezko igarobideak. Amuteko bizilagun-elkarteak proposatu zuen kontrolatzea espaloi gainean aparkatzen duten motorrak. Ildo beretik, Nagusilan elkarteko ordezkariak oztopo bilakatu diren hainbat zuhaixka aipatu zituen, izan ere, hainbat kaletan espaloien erdia baino gehiago hartzen dute. Horrekin batera, Pierre Loti pasealekuan txanelak daudela salatu zuen, oinezkoen bidea asko estutzen baitute. Bestalde, Butron pasealekuan zirkulatzen duten zenbait ziklistek sortzen dituzten arriskuak aipatu zituen, gogoratuz txirrindularien trafikoa kale paraleloetara desbideratzeko erabakia. Azkenik, azpimarratu zuen gero eta garrantzi handiago duela 65 urtetik gorako herritarren mugikortasun espezifikokoak, egun herritarren % 25 inguru baitira.



Ingurumen-zinegotziak ekarpenak eskertu eta egindako galderak erantzun zituen. Bat dator HMJPre jarduerak hain motel egiteak sortzen duen frustrazioarekin, eta aitortzen zuen ez direla bete 2020ko mugikortasun-gaietarako inbertsio-aurreikuspenak. Azaldu zuen osasun-krisiak behartuta, Udalak giza baliabideak bereziki gizarte-arazo larriak antolatzeko eta bideratzeko baliatu dituela. Dena den, aurrerakuntzak izan dituzten mugikortasun-egitasmoak erreparasatu zituen eta konfiantzaz adierazi zuen laster egingo zirela. Azpimarratu zuen asfaltatze-kanpainak izan duen garrantzia, erlazioa izango baitu Bidasoa etorbideko eta Portuko ziklagarritasuna hobetzeko jarduerekin. Mendelurekin bizikleta-lotura egiteari dagokionez, azaldu zuen orain arte Aldundiarekin hiru bilera egin direla, eta aukeren ikerketak aurrera jarraitzen duela. Aztertutako autobus txikien zerbitzuari dagokionez, topatutako zailtasunak azaldu zituen eta nahiz eta garrantzitsua izan, orain lehentasun bat ez dela esan zuen. Bizikletan mugitzen diren ikasleen segurtasunari dagokionez, aipatu zuen agente zibikoak jartzeko eta segurtasun-elementuak banatzeko asmoa dagoela. Arazoak sortzen dituzten zuhaixkei buruz informazioa bidaltzeko eskatu zuen, ebaluatzeko eta konponbidea bilatzeko. Azkenik, balioa eman zion Mahaiak data horretaraino egindako lanari eta animoak bidali zituen ilusioa piztu zezaten mugikortasun jasangarriaren gaietan aurrera egin ahal izateko.

Saioa 20:15ean amaitu zen.

Reunión de la mesa de la movilidad sostenible de Hondarribia

Actividad: Exposición de avances recientes y balance del año 2020.

Fecha y modo: 20 de diciembre de 2020 a las 18:30h a través de videoconferencia

Convoca: Ayuntamiento de Hondarribia

Participantes

Asisten 17 personas adultas (6 mujeres y 11 hombres).

	Nombre	Entidad
1	Maialen Ausin	Técnico de Medio Ambiente municipal
2	Ainhoa Larretxea	Instituto Talaia
3	Cesar Campos (Susana de ayudante)	Vecino
4	Jesús Uranga	Policía Local
5	Gorka Obeso	Instituto Talaia
6	Ángel Alkain	Amuitz, vecino
7	Iñaki Loinaz	AMPA Ama Guadalupekoa
8	Eli Sorondo	Directora colegio Ama Guadalupekoa
9	Iñaki Astudillo	AA.VV. Amute Kosta
10	Alicia Pino	Vecina
11	Noemi Odriozola	Concejal PSE
12	Cesar Martín	Nagusilan
13	Juan Luis Silanes	Concejal delegado Medio Ambiente
14	Manu Eizagirre	Asociación Balazta
15	Estibalitz Hernández	AMPA Talaia
16	Gonzalo Navarrete	Facilitador de la Mesa
17	Ander Irazusta	Facilitador de la Mesa

Puntos tratados

- 1-Desarrollo de la regulación 30 km/h y cambios recientes
- 2-Ampliación de la red de aparcabici
- 3-Estado de los proyectos de mejora de entornos escolares
- 4-Balance del año 2020. Propuestas y sugerencias

El concejal de medio ambiente da la bienvenida y agradece la asistencia al encuentro. Dada la situación especial de emergencia sanitaria el encuentro se realiza por videoconferencia. En esta sesión se incorporan a la Mesa dos nuevos participantes: la representante del grupo municipal socialista y un vecino de Amute usuario de silla de ruedas.

1. Desarrollo de la regulación 30 km/h y cambios recientes

Se exponen los cambios recientes en el Reglamento General de Circulación en relación a la velocidad, que como novedad establece la velocidad 30 km/h en las calles de un carril por sentido. Se trata de una norma que refuerza las medidas que se han empezado a implementar en Hondarribia y que tendrá reflejo en la nueva ordenanza de circulación municipal.

2. Ampliación de la red de aparcabicis

Se informa sobre la ampliación de la red de aparcabicis llevada a cabo en las últimas semanas, destacando las ubicaciones de Mendelu, Amute, el Instituto Talaia y las inmediaciones de la pasarela de acceso a la Parte Vieja.

3. Proyectos de mejora de entornos escolares

Se exponen los avances en la intervención de mejora del entorno de la escuela Ama Guadalupekoa de la calle Bitoriano Juaristi. Una vez ejecutado se prevén diversas actividades de evaluación con la comunidad educativa y vecinos. En cuanto al proyecto de Talaia Alai del entorno de Talaia-Bordari e Instituto Talaia se explica que está muy avanzado, y que próximamente se reanudará el proceso participativo interrumpido en marzo de 2020, contrastando las diferentes partes del proyecto con la comunidad educativa, los vecinos y la propia Mesa de Movilidad.

4. Balance del año 2020. Propuestas y sugerencias

Con el objetivo de hacer balance global del año 2020 en relación a la movilidad en Hondarribia y de tomar impulso de cara al 2021, se dedica la mayor parte del encuentro a una ronda de turnos de palabra en la que participa la mayoría de las personas asistentes.

Desde la asociación de ciclistas Balazta expresan su parecer respecto al funcionamiento y la actividad del Ayuntamiento en el último año en relación al Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS), que perciben como muy escasa. Consideran que la crisis sanitaria constituye una oportunidad a aprovechar para implementar diversas medidas de potenciación de modos sostenibles, citando ejemplos de otros lugares en los que se han adecuado infraestructuras para el fomento de los modos peatonal y ciclista. También destacan que no se ha invertido en el mantenimiento de la red ciclista existente. Hacen referencia a los principios del Pacto local por la Movilidad Sostenible y un llamamiento a que no se queden en el olvido. Valoran positivamente el esfuerzo realizado en materia de aparcabicis, recordando la importancia de valorar previamente la tipología de los mismos. Piden que se realicen lo antes posible las actuaciones de mejora de la ciclabilidad previstas.

Desde el AMPA de Talaia se quejan de que, tras el profundo trabajo de la Mesa y el esfuerzo realizado en la planificación de la movilidad, no se perciben avances palpables en esta materia. Destacan que tras el comienzo de un nuevo curso el problema de movilidad en la zona escolar de Talaia Bordari e Instituto Talaia, que consideran de urgente resolución, perdura aún, comentando que al menos se podían haber implementado soluciones provisionales de mejora de la seguridad y comodidad de peatones y ciclistas. Valoran positivamente la campaña municipal

para reducir el uso del coche dentro de Hondarribia, pero dudan de su eficacia si no se acompaña de medidas físicas que disuadan su uso y potencien los modos sostenibles. Se considera un avance positivo pero tímido e incongruente la habilitación de una zona de parada de coches de 30 segundos en la calle Iztueta, ya que, aunque parece que podría mejorar la situación del tráfico del entorno escolar, atrae a los coches hasta prácticamente la puerta del centro educativo.

Desde la dirección de la escuela Talaia Bordari se aclara que dicha zona de estacionamiento exprés en la calle Juan Inazio Iztueta fue una petición del propio centro con el objetivo de paliar en primera instancia la acumulación de coches en la puerta y tratar de evitar situaciones peligrosas. No obstante, consideran necesario tomar medidas de mayor calado para favorecer los desplazamientos a pie y en bicicleta seguros. Constatan que el uso de la bicicleta es ya muy importante y que los aparcabicis se llenan.

Desde la asociación de vecinos de Amute-Kosta se considera que se han hecho pocas cosas para cambiar el paradigma de movilidad. Se exhorta a que se implementen medidas atrevidas que fomenten los modos sostenibles, dado que si los planes y proyectos no se traducen en avances reconocibles se genera desánimo para continuar trabajando.

Desde el grupo municipal socialista se considera que mientras no existan alternativas reales al coche la utilización del mismo será necesaria para desplazarse en Hondarribia, especialmente en días lluviosos. Pregunta por la viabilidad de un servicio de transporte público con autobuses pequeños.

Varias participantes valoran positivamente las campañas para reducir el uso del coche y la reciente implementación de la regulación de 30 km/h, destacando que se ha conseguido reducir la velocidad del tráfico, por ejemplo, en la zona de Baserritarren etorbidea. Se comenta también que aún hay ciudadanos que no se han enterado de la nueva regulación, por lo que es necesario hacer más campañas.

Se pide al ayuntamiento que informe sobre el gasto realizado en proyectos relacionados con la movilidad sostenible, haciendo un balance entre lo presupuestado y lo gastado. También se pregunta por la situación de las gestiones del Ayuntamiento para lograr la conexión ciclista entre Hondarribia e Irun.

Hay varias intervenciones que hacen referencia a la accesibilidad y supresión de barreras arquitectónicas, y a la movilidad peatonal. La persona usuaria de silla de ruedas dice que la situación de Hondarribia ha mejorado algo en los últimos años pero que todavía es bastante complicado desplazarse con silla. En la misma línea, otra participante de la Mesa urge a solucionar los abundantes pasos peatonales con bordillos sin rebajar a cota cero. Desde la asociación de vecinos de Amute se propone controlar el aparcamiento de motos en las aceras. En la misma línea, el representante de Nagusilan cita los numerosos setos convertidos en obstáculos ya que en varias calles ocupan más de la mitad de la acera; igualmente denuncia la presencia de chinchorros en el paseo de Pierre Loti, ya que estrechan mucho el paso peatonal; por otra parte se cita la peligrosidad que generan algunos ciclistas que circulan por el paseo Butrón recordando la decisión de desviar el tráfico ciclista por las calles paralelas; finalmente destaca la importancia creciente de las necesidades específicas de movilidad de la población mayor de 65 años, estimando que actualmente suponen un 25% del total de habitantes.



El concejal de medio ambiente agradece las aportaciones y responde a las cuestiones planteadas. Comparte la frustración en relación a la lentitud en las actuaciones de desarrollo del PMUS, reconociendo que efectivamente no se han cumplido las expectativas de inversión en temas de movilidad para el año 2020. Explica que la crisis sanitaria ha obligado al Ayuntamiento a centrar los recursos humanos en organizar y canalizar ayudas para paliar problemas sociales urgentes. No obstante, repasa los proyectos de movilidad en los que se ha avanzado y muestra confianza en que se ejecuten pronto. Destaca la importancia de la campaña de asfaltado que se vinculará a actuaciones de mejora de la ciclabilidad en Bidasoa Etorbidea y en Portua. En relación a la conexión ciclista con Mendelu explica que hasta el momento ha habido tres reuniones con la Diputación, y que se sigue avanzando en el estudio de alternativas. En relación al servicio de minibús estudiado explica las dificultades encontradas y que, siendo importante, no es ahora prioritario. En relación a la seguridad de los alumnos que se mueven en bicicleta cita la intención de destinar agentes cívicos y repartir elementos de seguridad. Solicita que se envíe información de los setos problemáticos citados para evaluarlos y actuar. Finalmente pone en valor el trabajo realizado por la propia Mesa hasta la fecha y anima a renovar la ilusión que se necesita para poder continuar avanzando en materia de movilidad sostenible.

Se cierra la sesión a las 20:15.